



*Ajangizko Udala*

## **AJANGIZKO UDALAK 2009KO APIRILAREN 30EAN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

### **Batzarreratuak:**

#### **Alkatea:**

*Koldo Carbonell Oihartzabal jauna*

#### **Zinegotziak:**

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna  
Jabier Berrojalbiz Bidaguren  
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea  
Beñat Erezuma Arisketa  
Jasone Bernaola Aurrekoetxea Andrea  
Roman Etxeandia Zabala*

#### **Idazkaria:**

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2009ko apirilaren 30ean arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotzietan.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

### **1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-**

2009ko martxoaren 26an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

### **2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-**

- **Martxoaren 23ko 2009/21 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Duñabeitia S.L.k, Ajangizko 6. Poligonoko 78 eta 79 lursailetatik egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako jarritako 1.352,00 euroko bermearen itzulketa.
- **Martxoaren 23ko 2009/22 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Central Forestal S.A. enpresari, J.A.M. jaunaren ordezkari den einean, Mendatako 1. Poligonoko 175 partzeletatik egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimena.



## Ajangizko Udala

- **Martxoaren 23ko 2009/23 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.R.F.k aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ajangizko Gorgana baserriko beheko solairuan zolaketa burutu eta komuneko atea aldatzeko lanetarako baimena.
- **Martxoaren 23ko 2009/24 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.C.I.k aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ajangizko Gorgana baserri ondoan txakurrentzako eta gasoil depositoa jartzeko aterpea eraikitzeko baimena.
- **Martxoaren 30ean 2009/25 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Jose Ramon Sagasti Uriarte jaunari, Mendieta 18an dagoen Muskiz baserriko erretila konpontzeko baimena.
- **Martxoaren 31ko 2009/26 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko 1. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroiaren onarpena.
- **Otsailaren 23ko 2009/27 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.P.O.ri, Mendieta 33an dagoen Bieskoa baserriko erretila konpontzeko baimena.
- **Apirilaren 3ko 2009/28 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** F.B.A.ri, Mendieta 45ean dagoen Torrezuri baserriko teilatuan teila batzuk konpontzeko baimena.
- **Apirilaren 7ko 2009/29 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika-Lumoko polikiroldegian erroldatu eta errodatu gabeen arteko prezioen diferentziaren ordainketa.
- **Apirilaren 7ko 2009/30 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.M.Z.k egindako eskaera onartu eta 2009ko polikiroldegiko kuotaren familia ugarientzako laguntza ematea:  $106,90 \text{ euroren } \%50^a = 53,45 \text{ €}$
- **Apirilaren 7ko 2009/31 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.G.A.k egindako eskaera onartu eta 2009ko polikiroldegiko kuotaren familia ugarientzako laguntza ematea:  $173,05 \text{ euroren } \%50 = 86,52 \text{ €}$
- **Apirilaren 8ko 2009/32 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko hiri altzariak, landabideak eta naturguneen mantenimendurako programa onartzea, guztira 12.328,80 euroko kostuarekin.
- **Apirilaren 17ko 2009/33 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizen, Maier S. Coop. enpresa Euskaltelen telekomunikazio sarera lotzeko hiru hodiko instalazioa burutzeko baimena ematea Euskaltel enpresari, 2009ko apirilaren 14an aurkeztutako separatan adierazitakoaren arabera.

### **3.- KANPANTXUKO ARGINDARRA HOBETZEKO LANEN ESLEIPENA, BEHAR BADA.-**



## *Ajangizko Udala*

Udal Osoko Bilkurak 2009ko martxoaren 26an onartu zituen Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanak esleitzeko pleguak onartu zituen. Lanak argitalpenik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko oinarriak onartuta, hiru enpresari bidali zitzairen parte hartzeko proposamena:

- Construcciones Garatxena
- Korraletxe Isasi
- Foc

Hiru enpresa horietatik Construcciones Garatxena izan da prozeduran parte hartzeko interesa aurkeztu duen enpresa bakarra. Korraletxe Isasik plantila arazoak direla medio lanak burutu ezin dituztela erantzun du eta Foc enpresak ez du inolako erantzunik eman.

Juan Maria Garatxena Abaroa jaunak aurkeztutako dokumentazioa eta proposamena aztertuta, Garatxena jaunak pleguak jarritako baldintzak onartzen ditu, baita Carlos Ortiz de Zarate jaunak egindako proiektuak jasotzen dituen prezio, neurketa eta baloreak ere.

Lan sorrerari dagokionez, lan hauek burutzeko bost pertsona aurreikusten ditu, lanaldi osoan printzipioz lau hilabetez: arduradun bat, bi ofizial eta bi peoi. Horrez gain, lanek elektrizitatean adituak eskatzen dituela kontutan hartuta, lan horiek burutzeko Elecnor enpresa kontratatuko du.

Adierazitakoa kontutan hartuta, Construcciones Garatxenak eskatutako baldintzak betetzen dituela kontutan hartuta eta aurkeztutako eskaintza bakarra dela ikusita, Udal Osoko Bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez ebatzen du:

Lehenengo.- Juan Maria Garatxena Abaroa jaunari Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanak behin behinez esleitzea, Udal Osoko Bilkurak onartutako proiektua eta baldintza pleguen arabera, guztira 78.229,00 euroko kostuarekin, BEZ, Industria onura eta bestelakoak barne.

Bigarren.- Azaroaren 28ko 9/2008 Erret Dekretu Legeak araututakoaren arabera, behin behineko esleipena behin betiko bilakatzeko, interesdunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du bost lanegunetako epean:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Asegurantzarekin bete beharreko beharrak beteak dituela justifikatzen duen dokumentazioa
- Esleipen prezioaren %5eko bermea jarri izanaren ziurtagiria (3.372,00 €).

Epe hau igarota aipatutako dokumentazioa Udaletxean balego, behin behineko esleipena behin betiko bilakatuko da, jakinerazpena jaso eta bost lanegunetako epean beste akordiorik hartu beharrik gabe.

Hirugarren.- Behin-behineko esleipena behin betiko bilakaturik, esleituak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Udaletxean kontratua perfektionatzeko:

- Pleguak 11.2 artikuluan jasotzen dituen aseguruaren eta orien ordainketaren ziurtagiriak.
- Erantzunkizun zibileko polizaren eta ordaindu izanaren ziurtagiria.



*Ajangizko Udala*

Laugarren.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

#### **4.- KANPANTXUKO ARGINDARRA HOBETZEKO LANEN ZUZENDARITZA ESLEITZEA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanak burutu ahal izateko, lanen burutzapenerako asistentzia teknikoa eta zuzendaritza kontratatzea nahita nahiezkoa da. Lan hori burutzeko, proiektua egin duen Carlos Ortiz de Zarate Ingenieria eskatu zaio aurrekontua. Jasotako aurrekontuaren arabera 1.972,16 euroko kostua izango luke lan horrek.

Jasotako eskaintza aztertuta eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen legea kontutan hartuta, espedientea osatzen duten txostenetan oinarrituz,

Udal Osoko Bilkurak, aho batez adosten du:

Lehenengo.- Kanpantxuko argiteria hobetzeko lanetarako asistentzia teknikoa eta lanen zuzendaritza INGENIERIA ARTAZA S.L. enpresako Carlos Ortiz de Zarate jaunari agintzea, 1.972,16 euroko kostu orokorrekarekin.

Bigarren.- Ebazpen honen berri esleituari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

#### **5.- MOTORDUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN 2009KO UDAL PADROIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

2009 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda aurkeztuta, batzartutako zinegotzien aho batez ebatzen dute:

Lehenengo.- 2009 urteko Trakzio menakizko ibilgailuei dagokion Zerga Errolda onartzea.

Bigarren.- Tributuei buruko Abenduaren 28ko 230/63 Lege Orokorreko 124. Atalak eta martxoaren 26ko 3/86 Tributuen Foru Arau Orokorreko 125.2 artikuluan araututakoarekin bat, irgarki honek Trakzio Mekanizko Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez zergapekoei zuzendutako jakinerazpen kolektiboaren ondorioak izango ditu.

Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hamabost (15) eguneko epean, errolda jendaurrean arkezten da, interesdunek errolda aztertu eta bidezko deritzaten alegazio edo erreklamazioak aurkezterik izan dezaten.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, errolda behin betiko onartutzat joko da.

Non. Noiz eta nola ordaindu



## Ajangizko Udala

- Borondatezko ordainketa, gaoinordainik gabekoa.

a) Epea: 2009ko uztailaren 1etik 31ra (bi egun horiek barne)

b) Non eta nola ordaindu: Domiziliatu gabe dituzten zordunek, Banketxetan edo udaletxean jendaurreko ordutegian ordaindu dezakete, dagozkien inprimakia aurkeztuz. Zergadunek ordainagiriak banketxetan helbideratu dezakete.

Inprimakiak jaso ez izana edota ordainagiritan akatsen bat egoteak ez du ordaindu beharra salbuesten

Borondatezko epea igarota ordainketa burutuko ez balitz, premiabidez kobratzeari ekingo zaio, Bilketarako Erreglemendu orokorreko 95 eta 96 artikulua aplikatuz, %20ko gainordainaz, berandutze interesak, gastuak eta kostua gehituz.

Indarreango xedapenen arabera, zerga honen ordainketa gauzatu ezean, ezin izango da ibilgailuaren alta, baja zein eskualdaketarik egin.

### 6.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Roman Etxeandia zinegotziak, aurreko batzarrean aipatu zen Gernikako Alkatearekin izandako batzarrak besterik ekarri duen galdetzen du. Alkateak oraindik erantzunik jaso ez dela aipatzen du, nahiz eta berak birritan deitu. M<sup>a</sup> Asun Barayazarrak birritan esan dio Gernikako Alkateak deituko diola, baina ez da inolako deirik egin.

- Alkate jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiari Tokiko Agenda 21 programa barruan Ajangizko aisialdi ekipamenduen egokipenerako egindako dirulaguntza eskaeraren berri ematen du. Proiektu honek kanapntxuko frontoia eta plaza margotu, Mendietako haurren jolastokia konpontzea eta Kultur Etxe ondoan barandila jartzea hartzen ditu bere baitan, guztira 17.964,91 euroko aurrekontuarekin. Ingurumeneko Foru Diputatutaren apirilaren 24ko 891/2009 Foru Aginduaren bidez Ajangizi 10.778,95 euroko dirulaguntza onartu zaio.

- Alkateak Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen II. Faseari buruzko infomazioa ematen du. Dagoeneko jabeekin hitzegin ondoren, aldeko jarrera azaldu dute. Ura Ur Agentziari ere baimena eskatu zaio eta prozedura hori ere bidean da, iragarkia jendaurrean egon eta gero alegaziorik gabe bidali baitzaie.

Proiektu hau aurrera eramateko dirulaguntzei dagokienez berriz, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailak 101.215,46 euroko laguntza onartu du, proiektu osoaren %39,88ko laguntza alegia.

Halere arazoa Landabideen planarekin sortu da. Landabideetarako dirulaguntza deialdia aldatu egin dute, eta Aldundiak Eusko Jaurlaritzak egindako nekazal-lurren sailkapen bat hartu du kontutan. Sailkapen horretan Ajangiz nekazal herria ez baina nekazal lurak dituen herri modura sailkatzen da, eta horrek Aldundiak egindako deialditik kanpo usten du. Jaurlaritzak egindako sailkapena herriko renta per capitaren arabekoa omen da, eta Ajangizek dituen biztanleak kontutan hartuta, Maier industria modura Ajangizen egoteak errenta horri gora egiten



## *Ajangizko Udala*

dio. Alkateak aipatzen duenez Ajangiz nekazal herria dela argi dago ezagutzen duen edonorentzako, eta Maierek herriari dakarkion aberastasunak ez du dirulaguntzetatik kanpo geratzea konpensatzen. Egoera honi irtenbidea konpondu nahian berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zaio Landabideen plana jasotzen duen Foru Dekretuari eta datorren maiatzaren 7an, arratsaldeko 4:30etan Irene Pardo Nekazaritza arloko diputatuarekin hitzordua hartu du Alkateak. Udalak proposatzen duena ez da sailkapena aldatzea, hori Eusko Jaurlaritzak egin baitu Europako direktiben arabera. Udalak dirulaguntza ematerakoan sailkapen hori baztertzeko kriterio modura ez hartzea proposatzen du, horren ordez beste kriterio batzuk aplikatuz: agrarian alta dauden biztanle kopurua, herriaren itxura...

- Alkateak Lurgozo elkarteak egindako proposamena aipatzen du. Lurgozo produktu ekologikoak merkatuan jartzen dituen kooperatiba bat da. Produktu horiek erosteko elkartearen kide izan beharra dago, horretarako urtean 60 euroko kuota bat ordainduta. Elkarte honek orain arte Gernikan izan du bere salmenta puntua, baina orain Ajangizera etorri da, horretarako Udalak utzitako lonja erabiltzen duelarik. Beraiek aurkeztutako proposamenean, lokala uztearen truke Ajangiztar guztiak bazkide egiten dituzte inolako kuotarik ordaindu beharrik gabe, eta horrez gain Ajangizen produkzio ekologikoko produkturik balego, bertan saltzeko aukera ere ematen diote. Proposamen hau tramitatu beharra dago, jarduerarako baimena lortu... Astean lau arratsaldetan martitzenetik-barikura eta 17:30etatik 20:30etara zabaltzen da denda. Etxeandia jaunak egindako galdera erantzunez, eskaera Lurgozok egin du elkarte modura eta gaur egun alkaterean 108 bazkide daudela komentatzen du Alakateak.

- Roman Etxeandia jaunak Ajangizko Hiri Antolaketarako Plan Orokorren prozesua nola dagoen galdetzen du. Alkateak proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 5a dela aipatzen du eta maiatzaren 8an 12etan proposamen horiek aztertzeko batzarra deitua dagoela.

- Koldo Carbonell Alkate jaunak, frontoiko proiektuaren erredakziorako hamabost proposamen jaso direla aipatzen du. Orain proposamen horiek aztertu eta proiektua garatzeko autatuko den ideia aukeratu behar da.

- Etxeandia jaunak Obispaduekin Elizaren konponketarako harremanak zelan dauden galdetzen du. Alkateak, Urrutxurtu Obispaduko aparejadorea Ajangizen izan zela adierazten du eta Elizaren egoera ikusten elkarrekik joan zirela. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak Obispaduak egindako eskaerari erantzunez lanak egiteko baimena eman du, baina Aste Santurako etortzeko geratu bazen ere oraindik ez dute Udaletxean inolako proiekturik aurkitu.

- Azkenik Alkateak toponimia lanari buruz dauden azken berriak azaltzen ditu. Joandako astean Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiakoa, Jon Kortazar eta Eusko Ikaskuntzako Garazirekin izandako batzarra aipatzen du. Lana nahiko aurreratua daukatela aipatzen du, lehenengo eta behin base de datos bat egiten dabilta, gero izen horiek Ajangizko mapa batean jasotzeko. Mapa hori eginda daukatenean, jendaurreko erakustaldi bat antolatuko da bakoitzak bere alegazio edo proposamenak egin ditzan, eta bakoitzari erantzuna emango zaio. Guztia bideratuta dagoenean, liburuxka bat ateratzea espero da. Horrez gain, toponimiak duen aberastasuna nolabait bermatzeko, Hiri Antolaketarako Plan Orokorra egiten denean,



*Ajangizko Udala*

proposamen modura eraikitzen diren etxe berriei izena jartzeko bertoko toponimia erabiltzea eskainiko zaie.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatzia direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

**ALKATEA**

**BITARTEKO IDAZKARIA**